



## Zergatik bihurtu CHANGE enbaxadore?

CHANGEko Ikasle Enbaxadore zaren aldetik, **ekarpen positiboa** egingo diozu zure eskolari eta tokiko komunitateari. Zure helburua gai hauei buruz **sentsibilizatzea da**: pertsona migrante eta errefuxiatuei ongietorria ematearen eta guztiok parte hartu ahal izateko gizartea eraikitzearen garrantziaz.

Ideiak garatuko dituzu, helburuak zehaztu, ekintzak planifikatu eta beste Ikasle Enbaxadore batzuekin batera arituko zara. Ikasle Enbaxadoreen talde bakoitzak **bi ekintza** planifikatu eta gauzatuko ditu.

Beherago metodoak eta aholkuak aurkituko dituzu ideiak garatzeko eta ekintzak planifikatzeko. Baita ere zure ekintzak nola ebaluatu ditzakezun ikusiko duzu.

### 1 PAUSOA

#### ZER BIHURTU DA NIRETZAT GARRANTZITSUA ETA ZER EGIN DEZAKET?

Hasteko, CHANGE proiektuan zehar ikasi dugunari buruz **hausnartzea** garrantzitsua da. Etapa bakoitzaren bukaeran gordetako zure emaitza pertsonalak (argazkiak eta oharrak) aztertu ditzakezu.

Hausnartzen jarraitzeko ondorengo galderak banaka erantzun:

- ✓ Zerk **hunkitu** nau gehien?
- ✓ CHANGE ondoren, ...-ri buruz **gehiago jakin** nahiko nuke.



- ✓ CHANGE ondoren, ~~erri buruz~~ zer bait egin nahiko nuke.

## 2 PAUSOA

### EKINTZARAKO ABIAPUNTUAK GURE EGUNEROKOAN

Ekintzarako ideiak batzuk garatzeko, lehenago aldaketarako behar bat identifikatzea komenigarria da. Aldaketarako behar bat ekintzarako abiapuntu on bat da. Zure taldearekin ondorengo galderak erantzun:

- ✓ Non ikusten dut aldaketarako behar bat babesarab eta migrazioa direla eta? *Adibidez: nire eskolan, nire kirol taldean, nire aisialdiko taldean, nire auzoan, etab.*
- ✓ Zerk behar du aldaketa bat?

Ekintzarako abiapuntu lista bat egin dezakezu orain. Kontutan eduki hurrengo ariketarako. Orain ekintzari buruz pentsatzeko momentua da. Has gaitzen.

**Ekintza arlo desberdinak** aurkitu ditzakezue:

#### Topaketa eta harremanak



Pertsona migrante eta errefuxiatuekin elkartzeko eta horiei laguntzeko aukera emango dizueten ekintzak, lan boluntarioaren bat edo zerbitzu solidarioko proiektuen bat eginez

#### Sentsibilizazioa



Migrazioaren alderdi positiboez ikasitakoa partekatzeko ekintzak, sare sozialetan kanpaina txikiren bat eginez edo zuen komunitatean ekintzaren



bat antolatuz.

STUDENTS



### Eragina

Ikasitakoa tokiko lider politikoekin partekatzeko eta erdietsi nahi duzuen aldaketak haiekin aztertzeko.

Aske sentitu zure ideiak partekatzeko!

Zailtasunak aurkitzen badituzu, galdera hauek erantzun ditzakezu idei gehiago lortzeko:

- ✓ Nola aurkitu ditzaket migrazio edo babesa esperientzia izan duen jendea?
  
- ✓ Ezagutzen al dut errefuxiatuekin edota migratzaileekin lan egiten duen erakunderik?
  
- ✓ Ezagutzen al dut errefuxiatuei edota migratzaileei babesa ematen dien tokiko proiekturik edo ekimenik?

Idea-jasa egin ondoren ekintzarako hiru ideia idatzi zerrenda honetan:

1. \_\_\_\_\_

2. \_\_\_\_\_

3. \_\_\_\_\_



# 3 PAUSO

## PLANIFIKAZIOA - NOR? NOIZ? NOLA? NON?

Orain zure ideia praktikan jar dezakezu, Ekintza Plana erabiliz. Poster tamainako orri batean marraztu dezakezu. Ikusteko erraza izan behar da hurrengo pausoa (4. pausoa) aurkeztu behar izango duzulako.

EKINTZA PLANA		
<b>EKINTZA ESPARRUA</b> <i>(Laguntza eta babesa, sentsibilizazioa edo eragina)</i>		
<b>GURE EKINTZA</b>		
<b>Ekintzaren bitartez sortu nahi dugun aldaketa (CHANGE)</b>		
ZER EGIN BEHAR DUGU?	ZER PLANIFIKATU DUGU?	EMAITZAK- ZER GERTATU DA?
<b>HELBURUAK:</b>  <i>Zer helburu lortu nahi dugu/ditugu? Zer aldatuko da gure ekintzaren ostean? Zer aldaketa lortuko dugu? Azaldu helburua xehetasunez, gerora bete ote den eta zein neurritan bete den baloratzeko.</i>		
<b>HELBURU PERTSONALAK:</b>		



<p><i>Zer helburu lortu nahi ditugu guretzako? Zer ikasi eta praktikatu nahi dugu? Zer aldaketa espero dugu/ditugu guregan?</i></p>		
<p><b>EKINTZAREN DESKRIBAPENA:</b></p> <p><i>Zer egin nahi dugu? Azaldu ekintza eta helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduera zehatzak.</i></p>		
<p><b>PROGRAMAZIOA:</b></p> <p><i>Noiz hasiko da ekintza? Zer egunetan egin behar litzateke gauza bakoitza? Noiz amaituko da guztiz?</i></p>		
<p><b>ERANTZUKIZUNAK:</b></p> <p><i>Nor da jarduera bakoitzaren erantzulea? Ba al dago ekintza guztia koordinatzen duen pertsonarik? Guztiek al dute norberaren gaitasun eta interesen arabera zereginen bat?</i></p>		
<p><b>BALIABIDEAK:</b></p> <p><i>Zer baliabide behar ditugu gure jarduerak burutzeko eta gure helburua erdiesteko? Egin zerrenda bat behar dituzuen baliabide guztiekin (teknologikoak, espazio fisikoak, material gehigarriak, dirua...).</i></p>		
<p><b>BABESA:</b></p>		



<p><i>Zein kide, babesle edo bestelako jendek lagundu eta babestu zaitzakete?</i></p>		
<p><b>HEDAPENA:</b></p> <p><i>Nola eman dezakegu gure ekintzaren berri eta aurretiaz jakinarazi? Zer erreminta behar ditugu ekintza honen berri emateko? (sare sozialak, posterrak, flyerrak, etab.)</i></p>		
<p><b>EMAITZEN BERRI EMATEA:</b></p> <p><i>Nola emango dugu ekintzaren emaitzen berri? Ekintza egin bitartean argazkiak ateratzeko arduradun bat izendatu. Sare sozialetan streaming bat egitea edo kazetari bati ekintzaren berri emateko eskatzea ere aukera ona dira.</i></p>		

## 4 PAUSOA

### ZURE EKINTZARAKO PLANA AURKEZTU "AUKEREN MERKATUAN"

Orain aukera merkatu batean parte hartuko duzu. Zure taldearekin batera zure ekintza plana aurkeztuko duzu beste klaseko kideen aurrean. Beste proposamenak ere ikusiko dituzu eta beraiei buruz hitz egingo duzu.

Merkatuaren helburua ekintzarako dauden ideiak alderatzea da, beraiei hitz egin eta balorazioak eman.

Merkatua egin ondoren, idatzi zein bi ekintzatan parte hartzea gustatuko litzaizukeen:

1. \_\_\_\_\_

2. \_\_\_\_\_

## 5 PAUSO

### EKINTZA GAUZATU

- ✓ Zure ekintza plana kontutan hartuta, prest zaudete zuen ekintza gauzatzeko.
- ✓ Errespetatu zuen programazioa.
- ✓ Zure ikasle enbaxadore taldearekin komunikatu: hori da gakoa! Zuen ekintza planari buruz elkarrekin hitz egin.
- ✓ Ondo dago zuen ekintza planan aldaketa txikiak egin behar baduzue. Ondo planifikatzea beharrezkoa da baina ezin dugu dena aurreikusi!
- ✓ Beharrezkoa balitz zure irakasleari edo CHANGEko erakundeari laguntza eska diezaiokezue.
- ✓ Emaitzen jarraipena egin. Zuen prozesua eta ekintzaren emaitzak partekatu modu desberdinetan:
  - ✓ Zuen eskolako aldizkarian, web orrian edota sare sozialetan. Artikulu bat idatzi dezakezue edo bideo bat grabatu zuen ekintzaren inpaktua azalduz.
  - ✓ Sare sozialetan: argazkiak, bideoak edota mezuak parteka ditzakezue Instagram, Facebook edota Twitterren #IAMCHANGE eta #ACT4CHANGE traolak erabiliz.

Horrela beste pertsona batzuk animatu ditzakezue!

## 6 PAUSOA EKINTZARI BURUZKO HAUSNARKETA

Zure ekintza bukatu ondoren, hurrengo galderak erantzun.

1. Zer lortu nahi dugu ekintzarekin?
2. Zer lortu dugu? Nolako asebetetzea lortu dugu emaitzarekin?
3. Nola sentitu nintzen ekintza gauzatzen nuen bitartean? Zerk poztu ninduen, zer izan zen zaila, eta zer, etsigarria?
4. Zer ikasi dut ekintzatik gizarteari buruz, beste pertsoneri buruz eta nire buruari buruz?
5. Aldatu egin naiz? Eta, hala bada, nola?